


Giza eskubideak El Salvadorren

Birmilitarizazioa

2019az geroztik, eta segurtasunaren argudioa erabiliz, Bukelaren gobernuak herrialdearen birmilitarizazioa areagotu du, 1992ko Bake Akordioen aurka.

- Soldaduen kopurua eta segurtasun publikoan dituzten funtzioak handitu ditu.
- 2019tik 2022ra bitartean, Indar Armaturen aurrekontua % 76,8 handitu da.
- Defentsa Nazionalako Ministerioaren aurrekontuak gora egiten du etengabe. 2023an, 233.474.116 dolarrekoa izan zen eta, 2024an, 261.429.393 dolarrekoa.
- Segurtasun Agentzia Pribatuak indartzen jarraitu dute. Izan ere, 2022an, 428 zeuden, 19.338 agenterekin eta, gutxienez, 26.300 armarekin.




Autoritarismoa


2020



2021



2022



2023



Bere burua "diktadore cool" gisa aurkeztuta, eta Latinoamerikan eta Kariben populismo zigortzailearen ordezkari nagusia delarik, Bukelek politika autoritarioak eta neurri errepresiboak sustatzen ditu, egiturazko desperekotasunak konpontzeko bide bezala.

- 2020ko otsailaren 9an, Bukele indar armatuekin sartu zen Biltzar Legegilean bere agenda politikoa inposatzeko.
- 2021eko maiatzean, Bukelaren alderdiak kontrolatutako Biltzar Legegileak Justizia Auzitegi Gorenaren Auzitegi Konstituzionaleko bost epaileak kargutik kendu zituen.
- 2022an, gobernuak Salbuespen Erregimena dekretatu zuen. Hura 30 aldiz baino gehiago luzatu da eta indarrean jarraitzen du. Salbuespen Erregimenak funtsezko hainbat eskubide indargabetzen ditu, eta atxiloteta masiboak (ia 80.000 pertsona), Estatuaren zaintzapean zeuden 261 laguneren heriotza eta aurkarien kontrako jazarpena ekarri ditu, besteak beste.
- 2019tik 2023ra bitartean, sexu-indarkeriako 25.000 kasu erregistratu ziren, horietako asko Salbuespen Erregimenaren barruan eta segurtasun indarren eskutik.
- IAIP informazio publikoa eskuratzeko institutua ahuldu egin dute. Hura Estatuaren gardentasun tresna nagusia da. Herritar eskatzaileen aldeko ebazpenak izugarri jaitsi dira: 245 2020an, 67 2021ean eta sei 2022an (urtariletik apirilera).
- Artxibo militarretarako eta polizialearako sarbidea sistematikoki ukatu egin dute, eta horrek gatazka armatuaren krimenei buruz abian dauden ikerketak blokeatu dituzte.
- Estatuak ez ditu Pertsona guztiak Desagertze Behartuen aurrean Babesteko Nazioarteko Hitzarmena bezalako tresnak berresten.

Negazionismoan oinarritutako memoria ofiziala

Bukelaren gobernuak indarkeria politikoaren negazionismoa eta historia ezabatzea sustatzen du. Hala, biktimak mespretxatzen ditu eta Estatuak giza eskubideen urraketetan izan duen eta oraindik duen erantzukizuna ukatzen du.

- Estatuak gatazka armatuan zehar (1980-1992) egindako krimenek zigorrrik gabe jarraitzen dute.
- Presidenteak Bake Akordioak gutxien dituzte, horiek "fartsa" direlakoan. 2022an, memoriaren arloko hainbat neurri indargabetu zituen, hala nola Bake Akordioen Egun Nazionala.
- 2024an, Bukelek adiskidetzearen monumentua eraisteko agindu zuen. Hura 2017an inauguratu zen Bake Akordioen 25. urteurrena ospatzeko. Aldi berean, Indar Armaturen omenezko monumentu bat inauguratu zuen.
- Gatazkaren biktima zibilak duintzeko helburuz gizarte erakundeek eraikitako Memoriaren eta Egiaeren Monumentua hondatzen ari da, instituzioek ez baitute hura zaintzen.



Biktimen lan nekagaitza

Gerra amaitu zenetik, biktimek eta ondoan dituzten gizarte erakundeek hainbat neurri bultzatu dituzte trantsizioko justiziaren arloan, hala nola hauek:

- Borroka luze baten ondoren, 2016an, Justizia Auzitegi Gorenak indarrrik gabe utzi zuen Amnistiaren Legea (1993); izan ere, horrek inpunitatea bermatzen zuen.
- 2016az geroztik, biktimek behin baino gehiagotan aurkeztu dituzte giza eskubideen urraketa larrien biktimek erreparazio integrala eta justizia eskuratzeko Lege berezi bat sortzeko proposamenak. Oraindik ez da trantsizioko justiziaren arloko legerik onartu.
- 2017an, pertsona heldu desagertuak bilatzeko Batzorde Nazional bat (CONABUSQUEDA) sortzea lortu zuten. Hala ere, Batzordeak ez du ez autonomia ez aurrekontu nahikorik (2023ko aurrekontua 299.525 dolarrekoa izan zen eta 2024koa 268.470 dollarrera murriztu zen).
- Biktimen eskarietako bat DNA Datuen Banku Nazional bat osatzea izan da. Baina 2021ean DNA Datuen Banku Nazionalaren Legea egin bazen ere, oraindik ez da tresna hori sortu, eta horrek desagertutako pertsonak bilatzea oztopatzen du.



Iturriak:

Azul Originario, AMATE, Cristosal, FESPAD, IDHUCA, Red Salvadoreña de Defensoras de Derechos Humanos y SSPAS (2024). *El Modelo Bukele: Seguridad sin Derechos Humanos. El Salvador a dos años de régimen de excepción.*


Amerika arteko Batzordea (2024). *Informe Estado de excepción y derechos humanos en El Salvador.*

Cristosal (2022). *Análisis Jurídico del Régimen de Excepción decretado el 27 de marzo de 2022.*

Human Rights Watch (2023). *El Salvador: eventos de 2022.*

IEPADES, FESPAD y DECAV (2022). *La seguridad privada en El Salvador.*

OU DH (2024). *Informe sobre hechos de violencia sexual en El Salvador, 2019-2023.*



Laguntzailea:

